

**Helduen Literatura**

Adiskide bat nuen
Joxean Agirre
Elkar, 2013

Bizitza literaturan eta literaturan bizitza

LITERATURAKO irakasle gizonezko baten ahots narratiboa da eleberri osoan gidatuko gaituena. Narratzaile eta protagonista honek agerian utziko du bere kontaketa prozesuaren helburua: “Egunkarietatik deitu ohi dute hil berriari buruzko iritziak bil-tzeko... eta horregatik hasi nintzen neure adiskideak zerrenda-tu eta haiei buruzko gorazarre posibleak prestatzen” (9. orr).

Baina, *Adiskide bat nuen* izenburuak, zendutako lagun baten gorazarretik eleberria abiatzen badu ere, errusiar panpinen antzera zabalduko den istorio hirukoitza biltzen du bere bai-tan. Honela, istorioak zabalduz doazen neurrian, orotariko gai eta hausnarketa interesgarrien partaide izango gara: Historiari lotuak batzuk, euskal gatazka bezala, eta testuinguru zabalago batean, 68ko Maiatzeko mugimenduak. Eta abstraktuagoak beste batzuk: maitasuna, fantasia, desioa, identitatea. Azken hauek, Literaturaren gaineko erreferentziez indartuak datoze-nez, pertsonaiaren hezurdurari haragia eransteko balio dute.

Proust, Stendhal, Borges, Pessoa edo Agatha Christieren antzera narratzaile lotsatia da bera ere. “Mundua askoz ere ederragoa litzateke lotsatiz beteko balitz” (126. orr) aitortuko du momenturen batean, eta horregatik adiskide bat duela errepikatuko du etengabe bere bizitzako atal baten autobio-grafia literarioa idazteko.

Hiru istorio, beraz. Garibaldi, gaztetan borroka klandestino-an aritutako lagunari buruzkoa, hari zuzendua baita gorazarrea. Baina klandestinitatearen barrunbean bidaia-tuz, sakabanatuko dituzten errautsak ez dira benetako Garibaldirenak, bere iden-titatea ordezkatu zuen erakundeko beste norbaitenak baizik.

Narratzaileak maitasunagatik sufritzen du, hala antzematen du etxe azpiko parkean saltoka hasten den Freud izeneko txakurtxoak. Bere emaztea asteen hirutan kiroldegira joaten dela dio, baina beste gizon bat ikusten du errealtate gordinen. “Bera edo ni” galdetzea gustatuko litzaiokeen arren, ez du horretarako indarrik, eta Zurriolako terraza batean topatutako neska misteriotsu eta xarmant batekin amesten du. Neskaz gutxi dakigu; takoizko zapatak txilena modura erantzten dituela, futbolariek erakusten ez duten dotorezia batekin, bere ibilkerak gogoeta berezi bat merezi duela, eta abar. Azken finean prota- gonistaren ametsak, desioak, eta horiek idaztean ezagutzeroa ematen diguna besterik ez dakigu. Eleberri amaieran, Biografia eta Literaturaren inguruko eskola batean, argituko da haren identitatea.

Eleberri ederra, erreala eta ametsezkoa. Bizitza literaturan. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com